

**2015eko APIRILAREN 29an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA** **5 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2015eko apirilaren 29an, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

<b>Batzarburua</b>	Juan Luis Illarramendi Roteta jn.
<b>Bertaratutako zinegotziak</b>	Eider Illarramendi Azkue and. Jabier Etxaburu Elu jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Alizia Osa Otxandorena and. Mikel Goenaga Gubia jn. Ane Eizmendi Alberdi and. Gari Berasaluze Ostolaza jn. Imanol Lasa Zeberio jn. Maite Garrastazu Aranguren and. Maribel Albizu Barrenetxea and. Iban San Martin Hernandez jn. Ixidor Larrañaga Aierbe jn. Jesus Arana Gomez jn. Patxi Elola Azpeitia jn. Gloria Vazquez Herranz and. Mariana Aranburu Garate and. Aser Lertxundi Manterola jn. M <sup>a</sup> Jose Lafuente Grasa and.
<b>Bilkura hasita</b>	Irma Domingorena Zapirain and.
<b>Idazkaria</b>	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
<b>Kontu-hartzailea</b>	Lioba Maiza Rekondo and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatzu ditu Udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

## GAI-ZERRENDA

### 1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA

#### a) 2015eko martxoaren 25ekoa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

### 2.- UDAL ORGANOEN KUDEAKETAREN KONTROLA

#### a) Alkatetzaren dekretuak: 2015eko martxoaren 23tik apirilaren 24ra

Segidan, Alkatetzak 2015eko martxoaren 23tik apirilaren 24ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

#### b) Tokiko Gobernu Batzarra: 2015eko martxoaren 20tik apirilaren 17ra

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarra: martxoaren 20tik apirilaren 17ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

### 3.- UDALAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEN 2014ko AURREKONTUEN LIKIDAZIOAK ONARTZEN DITUZTEN EBAZPENEN BERRI EMATEA, ETA KONTU-HARTZAILTZAREN TXOSTENAK

Ondoren, eta Udalbatzarrari jakinaren gainean jartzeko, hitzez hitz ondoren jasotako dekretuen berri eman dute:

#### a) Udala

Alkatetzaren 0413 dekretua, 2015eko martxoaren 24koa:

“Udal honetako 2014ko aurrekontuaren likidazioari buruz kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

#### ERABAKI DUT

**Lehena.-** Udal honen 2014ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2014-12-31n:		1.219.782,30
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2014-12-31n:		8.601.151,59
Aurrekontuko zordunak :	4.404.069,34	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	4.394.774,47	

- Aplikatu gabeko kobrantzak:	-197.692,22		
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2014-12-31n:			4.025.613,60
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	3.171.706,99		
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	18.471,50		
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	835.435,11		
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00		
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):	5.795.320,29		
5.- Saldo kobragaitzak:	1.104.462,01		
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):	4.690.858,28		
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:			0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):			4.690.858,28
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:			103.367,82
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:			-129.395,45
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:			974.954,09
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:			26.646,92
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):			975.573,38
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:			549.157,95
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:			2.981.908,64
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):			3.531.066,59

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.”

### **b) “Zarauzko Turismo Bulegoa” erakunde autonomoa**

Alkatetzaren 0420 dekretua, 2015eko martxoaren 26koa:

“Zarauzko Turismo Bulegoa” Erakunde Autónomo honen 2013ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

#### **EBATZI DUT**

**Lehena.-** “Zarauzko Turismo Bulegoa” Erakunde Autónomo honen 2013ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2013-12-31n:			25.263,66
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2013-12-31n:			141.745,77
Aurrekontuko zordunak :	141.466,90		
Aurrekontuz kanpoko zordunak :	278,87		
Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00		
3.- Ordaindu gabeko saldoak,2013-12-31n:			90.663,14
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak	75.888,89		
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00		
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak :	14.776,25		
Aplikatu gabeko ordainketak :	0,00		
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1 + 2 + 3):			76.346,29
5.- Saldo kobragaitzak:			0,00
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5) :			76.346,29
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:			0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7) :			76.346,29
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza :			18.685,97
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza :			-2.579,02
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik :			0,00

12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik :	0,00
13.- Aurrekontua emaitza (9+10+11+12)	16.106,95
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	0,00
15.- Txerta ezin diren kreditu gerakinak:	0,00
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):	0,00

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Udalbatzarrari dekretu honen berri ematea hurrengo bilkuran.

### c) “Zarauzko Kirol Patronatua” erakunde autonomoa

Alkatetzaren 0420 dekretua, 2015eko martxoaren 26koa:

“Zarauzko Kirol Patronatua” Erakunde Autonomo honen 2013ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

#### EBATZI DUT

**Lehena.-** “Zarauzko Kirol Patronatua” Erakunde Autonomo honen 2013ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2013-12-31n:		56.201,20
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2013-12-31n:		457.020,42
Aurrekontuko zordunak :	455.584,45	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	1.435,97	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2013-12-31n:		210.388,48
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	176.022,83	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	26,90	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	34.338,75	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		302.833,14
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):		302.833,14
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		302.833,14
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		-18.960,10
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		10.299,49
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		152.232,99
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):		143.572,38
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:		108.839,85
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:		175.365,21
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):		284.205,06

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Udalbatzari eta Kirol Patronatuko Kontseilu Nagusiari dekretu honen berri ematea hurrengo bilkuretan.

Era berean, aipatutako likidazio horien harira kontu-hartzaileak egin dituen txostenen berri eman zaio Udalbatzarrari.

#### **4.- INFORMAZIOA**

##### **a) Finantza eta aurrekontuei buruz: 2015eko 1. hiruhilekoa**

Segidan, Udalbatzarrari jakitera eman zaio 2015eko lehenengo hiruhileko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa, Alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

##### **b) Ordainketako batez besteko epeari buruz: 2015eko 1. hiruhilekoa**

Hurrena, Udalbatzarrari jakitera eman zaio 2015eko lehenengo hiruhileko ordainketako batez besteko epeari buruzko informazioa, 2014ko Alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

#### **5.- KOMUNIKAZIOA UDALBATZARRARI: GASTU ARAUA ETA AURREKONTUEN EGONKORTASUNA BETE EZ IZANA BAI 2014ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA BAI 2015eko EKITALDIKO KREDITU-ALDAKETAK ONARTZEAN**

Ondoren, Udalbatzarrari jakitera eman zaizkio Kontu-hartzaileak 2015eko martxoaren 31n eta apirilaren 16an egindako txostenak: aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoak, eta Udalak onartu berri dituen aurrekontuaren likidazioaren zein kreditu aldaketen ondorioz egin beharrekoak zirenak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

#### **6.- ALDE ZAHARRA BIRGAITZEKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETA (E03 ETA E32 ERAIKUNTZA-UNITATEEI DAGOKIENA). BEHIN BETIKO ONESPENA.**

2015eko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Zarauzko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen hasierako onespena ematea 1-1 area -OR ALDE ZAHARRA- BIRGAITZEKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETARI (3. ALDAKETA). Teodoro Rochas

SL sozietateak abiarazi zuen espedientea eta E03 eta E32 eraikuntza-unitateei eragiten zien (Kale Nagusia 15 eta Azara kalea15).

Eragindako partzelak Zarauzko Alde Zaharreko Monumentu Multzoaren barruan eta birgaitze integratuko eremuaren barruan daude (BIE). Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen eta Etxebizitzaren Zuzendaritzek plan bereziaren aldaketaren aldeko txostenak idatzi zituzten.

Espedientea jendaurrean egon zen. Ez zen alegaziorik aurkeztu.

Espedientea sustatu duen sozietateak testu bategina idatzi du, eta hor jasota daude hasierako onespenean eskatu ziren zuzenketak.

Hirigintza eta Ingurumeneko udal zerbitzuak txostena egin zuen zuzendutako dokumentuari buruz; eta Udalerri Ereduaren eta Lurralde Antolaketaren informazio-batzordean ere dokumentu hori eztabaidatu zen.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatza legez osatzen duten 21 zinegotzien aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren "quorum"arekin, Udalbatzarrak

#### ERABAKI DU

**Lehenengoa.-** Behin betiko onespena ematea 1-1 area -OR ALDE ZAHARRA-BIRGAITZEKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETARI (3. ALDAKETA). Teodoro Rochas SL sozietateak abiarazi zuen espedientea eta E03 eta E32 eraikuntza-unitateei eragiten die (Kale Nagusia 15 eta Azara kalea15).

Onartu den dokumentua 2015eko martxoko testu bategina da, Jaime Abalos arkitektoak idatzitakoa.

**Bigarrena.-** Onartutako dokumentua Foru Aldundiko hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea. Horren ondoren, behin betiko akordioaren testu osoa eta hirigintzako ordenantzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara emango dira. Halaber, behin betiko onspeneko akordioa lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian argitaratuko da.

#### **7.- FAMILIEI ESKOLA MATERIALA EROSTEKO ETA/EDO KIROLA EGITEKO 2015. URTEAN DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK ETA DEIALDIA**

Zarauzko Udalak honako diru-laguntza eman nahi du: herriko ikastetxeetan, derrigorrezko hezkuntzako edozein mailetan, 2015/16 ikasturtean matrikulatutako ikasleentzat eskola materiala erosteko eta/edo kirola egiteko laguntza. Materiala, herriko saltokietan erositakoa izan beharko du.

Diru-laguntza horiek deialdi irekiaren bidez tramitatuko dira, eskaeren arteko lehiarik gabe eta banan-banako ebaluazioa eginda. Horretarako dagozkion oinarri bereziak prestatu ditu.

Jendarte Politikaren informazio-batzordeak egindako proposamena ikusi ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

## ERABAKI DU

**Lehena.**- FAMILIEI ESKOLA MATERIALA EROSTEKO ETA/EDO KIROLA EGITEKO 2015. urtean DIRU-LAGUNTZAK emateko oinarri bereziak eta deialdia onartzea.

**Bigarrena.**- Baimena ematea gastu hau egiteko, aipatutako partidaren kontura:

- Partida: 0503.481.03.231.10. 2015
- Gastua: 125.000 €

**Hirugarrena.**- Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

### FAMILIEI ESKOLA-MATERIALA EROSTEKO ETA KIROLA EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK ETA DEIALDIA 2015. URTEA

XEDAPEN HAUEK EZARTZEN DITUZTE OINARRI ARAUTZAILEAK :

1.- Zarauzko Udalak eta bere Erakunde Autonomoek diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea (2008ko uztailaren 22ko Gipuzkoa Aldizkari Ofiziala, 140 zk.)

2.- Zarauzko Udaleko Gizarte-Zerbitzuen Saitetik diru-laguntzak emateko Oinarri Bereziak (2008ko uztailaren 22ko Gipuzkoa Aldizkari Ofiziala, 140 zk.) eta ondorengo aldaketak.

- a) Helburua
- b) Eskaerak
- c) Instrukzioa eta proposamena
- d) Hautapen eta balorazio irizpideak
- e) Ebazteko eta jakinarazteko epea
- f) Diru-laguntzaren erabilera justifikatzea
- g) Diru-laguntzaren zenbatekoa
- h) Zuzkidura eta aurrekontuko partida
- i) Araudia
- j) Errekurtsoak

#### 1.- HELBURUA

Zarauzko herriko ikastetxeetan, derrigorrezko hezkuntzako edozein mailatan, 2015/16 ikasturtean matrikulatutako ikasleentzat eskolako materiala erosteko edo kirola egiteko laguntza. Materiala, herriko saltokietan erositakoa izan beharko du.

Diru-laguntza horiek deialdi irekiaren bidez tramitatuko dira, eskaeren arteko lehiarik gabe eta banan-banako ebaluazioa eginda. Horretarako dagozkion oinarri bereziak prestatu ditu

#### 2.- ESKAERAK

Eskaerak irailaren 15etik urriaren 30era bitartean aurkeztu beharko dira, presentzialki HAZ-eko bulegoetan (Kale Nagusia 29) .

- Eskaera horretan, diru-laguntzaren xedeko adingabeari buruzko datuak adieraziko dira, honako hauek barne: Izena, bi abizen, helbidea, jaiotze-data eta zein ikastetxetan ikasten ari den. Eskatzaileari buruzko datuak, honako hauek barne: Izena, bi abizen, identifikazio-zenbakia (NAN, AIZ edo pasaporte), helbidea eta diru-laguntza sartu behar den kontu korrontearen zenbakia.
- Era berean, eskola-materialeko gastua egiaztatze faktura atxikituko da eskaerari (hornitzailearen IFK/IFZ, data, fakturaren zenbatekoa eta diruz laguntzeko zenbatekoa) edo burutuko den kirol espezialitatearen eginiko edo egin beharreko ordainketaren egiaztagiria.
- Espedientea izapidetzerakoan, Udalak dokumentuak eska ditzake, laguntza eman ahal izateko baldintzak egiaztatze, bereziki Familia Unitatearen diru-sarrerei eta osaerari buruzkoak, eskolaratzeari buruzkoak eta eskola-materialaren gastua justifikatzekoak edo egiten den kirol ekintzarena.
- Emandako datuetan faltsukeria agertuz gero, ukatu egingo da laguntza, edo itzuli egin beharko da dagoeneko ordainduta balego, eskatzaileak sor litzakeen erantzukizunetatik eta hartatik sortutako zigorretatik aparte.
- Oinarrietan aurreikusitako betekizunak betetzen direla edo ez direla betetzen egiaztatu ondoren, onetsi edo ukatu egingo du Erabakitze Organoak, eta, hala badagokio, laguntzaren zenbatekoa ordainduko da.

### **3.- INSTRUKZIOA ETA PROPOSAMENA**

Organo eskudunak:

- Instrukzioa: Gizarte Zerbitzuetako arduraduna.
- Balioespen Batzordea: Kide anitzeko organo bat, jendarte politikarako batzordeko kideek osatutakoa.
- Ebazpena: Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzordeari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzei jarraiki.

### **4.- BALDINTZAK ETA HAUTATZEKO ZEIN BALORATZEKO IRIZPIDEAK**

Eskaeraren unean, honako betekizun hauek bete beharko dute Famili Unitateak:

- Laguntzaren xedeko adingabeak eta laguntza hori eskatzen duenak Zarauzko helbide berean 2015ko irailaren 15a baino lehen erroldatuta agertu beharko dute.
- Diru-laguntzaren eskatzailea diru-laguntza eman nahi zaion adingabearen aita, ama edo tutorea izan beharko du.
- Diru-laguntza eman nahi zaion adingabeak Derrigorrezko Irakaskuntzako mailei dagozkien ikasturteetako batean matrikulatuta egon beharko du EAeko Hezkuntza Administrazioako ikastetxe baimenduetako edozeinetan edo beste Hezkuntza Sistema batzuetako adierazitako edozeini dagozkion ikasturtean, Hezkuntza Administrazioen koadro konparatiboen arabera.
- Familia Unitatearen diru-sarrerak ez dute gainditu behar 17.000,00 €ko zenbatekoa 1. atalerako; edo 25.000,00 €, 2. atalerako, edo 35.000 €, 3. atalerako.
- Ezin izango dute laguntza hau jaso 35.000 €tik gorako diru-sarrerak dituzten Familia Unitateek.
- Eskaeraren unean, eskatzaileak faktura(k) eduki beharko ditu, edo haiek ordeztu dituzten antzeko dokumentua(k) (faktura sinplifikatua), betiere eskola-materiala Zarauzko dendetan erosi duela egiaztatuz, laguntzaren kopuruko edo gehiagoko balioan (BEZ barne); edo burutuko duen kirol espezialitatean eginiko edo egin beharreko ordainketaren egiaztagiria.
- Eskatzaileak kontu-zenbakia aurkeztu beharko du, laguntza han ordaindu ahal izateko (20 digito).
- Eskatzailea edo kontuaren titularra eta aurkezten den fakturaren bezeroa berbera izan beharko du.
- Familia Unitatearen diru-sarrerak zehazteko, PFEZ gaian dagoen araudian xedatutakoa bete beharko da.
- Familiaren Urteroko Errenta da, Familia-Unitateko kide guztien sarreren multzoa, 2014. ekitaldi fiskalean.
- Laguntza eskatzeko unean Familia Unitatearen baldintzak egin beharreko PFEZaren likidazioa egin zen uneko berberak ez badira, Familia Unitatea eratzen duten kideen datuak bakarrik kontuan hartuko dira eskaeraren unean. Kasu horretan, PFEZren azken kanpainari dagozkion Familia Unitatearen datu ekonomikoak proportzionalki hainbanatuko dira Familia Unitatearen kide guztien artean, jasotzailea zein izan den alde batera



utzita, Horren xedea da Familia Unitatearen diru-sarrerak zeintzuk diren zehaztea, egiaztatutako baldintza berriekin bat etorriz.

- Zarauzko Udalak ofizioz kontsultatuko du informazioa Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, bi administrazioen artean zerga-alorrean informazioa elkarri lagatzeko sinatua duten Lankidetzaren Hitzarmenaren arabera.
- Gipuzkoako Foru Lurraldean zerga-daturik izan ezean, eskatzaileari beharrezko dokumentazioa eskatu ahal izango zaio, 2014ko ekitaldiko Familia Unitateko Errenta zehazteko, besteak beste, eskatzailearen edo Familia Unitateko beste kide batzuen bizitoki den lurraldeari dagokion Zerga Aginteak emandako zerga-datuak, Gizarte Segurantzako Lan Bizitzaren txostena, Nominak, laguntzen eta diru-laguntzen egiaztatutakoak edo, baita Diru-sarren Zinpeko Adierazpenak ere.

## **5. EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA**

Laguntza horiek Erabakitzeke eta Jakinarazteke epe maximoa sei hilabetekoa izango da, eskaeren epe amaitu eta hurrengo egunetik zenbatuta.

- Jakinarazpenak udaletxeko Iragarki-taularen edo web orrialdearen bidez ([www.zarautz.eus](http://www.zarautz.eus)) egingo dira. Diru-laguntza eskaeran adierazitako kontuan ordaintzen denetik hilabete igarota, eta onuradunak uko egin ez badio, ondorio guztietarako jakinarazita dagoela ulertuko da.
- Deialdi honetako baldintza guztiak betetzen dituzten eskaerak ebatziko dira. Bestela gertatuz gero, eskatzaileei hamar eguneko epe bat emango zaie dokumentu hutsuneak konpontzeko edo baldintzak betetzen direla egiaztatzeko edo, hala dagokionean, eskatzaileak egoki irizten dituen alegazioak egiteko, eta hori guztia eskaera ebatzi baino lehenago.
- Aipatutako epea amaitzen denean, uko egintzat hartuko dira antzeman diren ez betetzeak dituzten eta alegaziorik aurkeztu ez dituzten eskaerak.

## **6.- DIRU-LAGUNTZAREN ERABILERA JUSTIFIKATZEA**

Diruz lagundu ahal izango diren gastuak eskola-materialak erosteagatik sortuak izango dira, eta betiere Zarauzko dendetan erosiak 2015ko uztailaren 1tik urriaren 31era bitartean, BEZ barne. Honako hauek dira eskola-materialak:

- Idazmahaiako materiala eta suntsikorrak: lapitzak, boligrafoak, ezabatzekoak, klipak, txorroskiloak, erregelak, eskuadrak, kartaboiak, transportadoreak, rotring-ak, koadernoak, folioak, kontsumigarri informatikoak.
- Material ez suntsikorra: Paper-zorroak, sailkatzaileak, artxibadoreak, estutxeak, kalkulagailuak, konpasak, eskolako bizkar-zorroak, testu-liburuak.
- Eskola-jarduerarako beharrezkoak diren jantziak: eskolako mantalak, betaurrekoak edo lentillak (lente zuzentzaileak), arropa eta kirol-oinetakoak gorputz-heziketa egiteko.
- Eskulanetako elementuak, Arte Hezkuntza, Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa, Teknologia edo Musika (argizariak, olioak, margoak, pintzelak).
- Eta oro har, ikastetxeak zirkularrez berariaz eskatutako edozein material.

\* Kanpo geratzen dira eskola-kuota, baita kirol-eskolarreko kuota ere, arropa eta oinetako orokorrak, eguzkitako betaurrekoak, ekipo informatikoak, hardware eta software.

Bestalde, Kirol ekintzen gastuak izan daitezke:

- Zarauzko herrian edota Gipuzkoako lurraldean kirol-ekintzak egiteagatik ordaintzen diren kuotak.

## **7.- DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA**

Ikasle bakoitzeko banakako zenbatekoa 1. atalean 100,00 €ko zenbateko gehiengora iritsiko da; 2. atalean, 75,00 €ko zenbateko gehiengora, eta 3. atalean, 50,00 €ko zenbateko gehiengora.

Laguntza hauek beste edozeinekin bateragarriak dira, baita xede berdinekoekin ere.

## **8.- ZUZKIDURA ETA AURREKONTUKO PARTIDA**

Deialdi honen bidez diru-laguntzak emateko zenbatekoa gehienez ere 125.000,00 eurokoa da, aurrekontuko

0503.481.03.231.10. 2015 partidaren egoztekoa.

Kreditu esleitu nahikoa ez bada onuradun izateko betekizunak betetzen dituzten eskaera guztiei erantzuteko, Udalak deialdi honetarako jarritako baliabideak zabaltzea egin ahal izango du.

Nolanahi ere, aldaketa horretarako, ez da beharke oinarri berriak onestea eta argitaratzea edo beste deialdi bat egitea.

#### **9.- ARAUDIA**

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, diru-laguntzena (azaroaren 18ko BOE); horren garapenerako Erregelamendua, uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailearen 25eko BOE); eta Zarauzko Udalak diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea (2008ko uztailearen 22ko GAO, 140 zk.) eta Gizarte Zerbitzuen Departamentutik diru-laguntzak emateko oinarri bereziak (2014ko irailaren 1eko GAO, 164. zk.), eta oinarri hauetan edota deialdi honetan jasotzen diren klausulak.

#### **10.- ERREKURTSOAK**

Deialdi honen aurka berraztertze errekurtsa jarri ahal izango zaio hilabeteko epean deialdia onartu duen organo eskudunari, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari.

Epeak bi kasuetan deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

### **8.- ZARAUZKO UDAL MUGAPEKO LOREZAINZA ZERBITZUA EGITEKO KONTRATUA LUZATzea ETA PREZIOA BERRIKUSTEA**

2010eko otsailaren 24an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen EULEN SA enpresari esleitzea, behin-behinean, ZARAUZKO UDAL MUGAPEKO LOREZAINZA ZERBITZUA egiteko kontratua, 396.983,69 euroko prezioan (BEZ sartuta). Kontratua 2010eko martxoaren 29an sinatu zuten.

2011ko martxoaren 30ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen EULEN SA enpresarekin sinatutako kontratua aldatzea, xede honekin: drainatze-txorkoak egin behar ez izateko eta zerbitzuko teknikaria aldatzeko. Ondorioz, kontratua 396.132,28 euroko prezioan geratu zen (BEZ sartuta).

2011ko urriaren 26an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki kontratuaren prezioa eguneratzea, eta 406.233,65 euroko prezioa ezartzea (BEZ sartuta), 2011. urterako.

Halaber, 2012ko ekainaren 20an egindako Udalbatzarrak erabaki zuen kontratuaren prezioa eguneratzea, eta 414.520,82 euroko prezioa ezartzea (BEZ sartuta), 2012. urterako.

2013ko maiatzaren 29an egindako bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen kontratua 2014ko martxoaren 29ra arte luzatzea eta kontratuaren prezioa eguneratzea, 435.537,20 euroko prezioa ezarrita (BEZ sartuta), 2013ko apirilaren 7tik 2014ko apirilaren 6ra.

Azkenik, 2014ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen kontratua 2015eko martxoaren 29 arte luzatzea eta kontratuaren prezioa

eguneratzea, 436.647,82 euroko prezioa ezarrita (BEZ barne), 2014ko apirilaren 7tik 2015eko apirilaren 6ra.

Ikusita Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuaren txostena (291/2015, apirilaren 9koa) eta Udalerri Ereduaren eta Lurralde Antolaketaren informazio-batzordearen irizpena, Udalbatzarrak, aho batez,

## ERABAKI DU

**Lehenengoa.-** ZARAUZKO UDAL MUGAPEKO LOREZAINZA ZERBITZUA egiteko kontratua urtebete luzatzea, 2016ko martxoaren 29ra arte.

**Bigarrena.-** Kontratuaren prezioa berrikustea eta urte osorako prezio hau jartzea: 432.936,32 euro (BEZ sartuta), 2015eko apirilaren 7ko ondorio-datarekin. Hona hemen laburpen taula:

2015-2016 urtea  
(2015/04/07tik 2016/03/29ra)

ZERBITZUA	ZERBITZUAREN USTIAPENA 2014-2015	PREZIO EGUNERATZEA 2015-2016 (-%0,85)	ZERBITZUAREN USTIAPENA 2015-2016	BEZ (% 21)	GUZTIRA
LORAZAINZA	360.865,97 €	- 3.067,36 €	357.798,61€	75.137,71 €	<b>432.936,32 €</b>

## 9.- LANKIDETZA HITZARMENA GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREKIN, HAINBAT JARDUERA KUDEATZEKO ARDURA EMATEKO

2013ko martxoaren 4an, Gipuzkoako Lurralde Historikoko tarifa-sistema bateratua ezarri zen, eta horretarako abiapuntua txartel bakarraren erdua eta oinarri teknologikoa izan ziren, Gipuzkoako Foru Aldundiak LURRALDEBUS marka erabilia arrakastaz garaturik.

Tarifa-sistema bateratua MUGI txartelaren inguruan eratuta dago; txartelari esker, titularrak bidaiatu dezake sistemari atxikitako edozein eragilerekin, partekatua den zonakapen baten arabera, tarifa bateratuak, talde berezi bateratuak eta hobaria duten garraio-aldaketak ahalbidetzeko politikak erabilia.

2013ko martxoaren 27an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan sartzea, elkartearen estatutuak onartuta.

Halaber, 2013ko irailaren 25eko osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzarekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea,

Gipuzkoako Lurralde Historikoko taldeko garraio publikoan tarifa-sistema bateratua ezartzeko.

Ondoren, 2014ko azaroaren 26an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erregelamendu hau onartu zuen: Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamendua, Zarauzko Udaleko eskuduntza eta lurralde esparruan. Testu osoa 2015eko otsailaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (37 zk.) argitaratu zen.

Erregelamendu hori onartzeko erabakiaren arabera, orain Udalak onartu egin behar du Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari ematea jarduera hauek kudeatzeko ardura:

- Harmonizazio erregelamenduan aurreikusitako tarifa-izaerako aparteko erreargua kobratzeko izapideetan.
- Irisgarritasun unibertsala behar bezala betetzeko zaintza-lanetan.
- Ibilgailuetako soinudun mekanismoak aktibatzeke beharrezkoak diren mandoen erosketan eta banaketan.
- Harmonizazio-erregelamenduan jasotako arau-urratzeek eragindako zehapen-espeditteen izapidetzea.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak lankidetzaren hitzarmen bat egiteko proposamena aurkeztu du: zehaztutako jarduerak kudeatzeko ardura gauzatuko duena, hain zuzen.

Horiek horrela, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 15. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta Udalerri ereduaren eta lurralde antolaketaren informazio-batzordeak irizpidea eman ondoren, Udalbatzarrak aho batez

#### ERABAKI DU

**Lehena.**- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari ondorengo hauen kudeaketa agintzea:

- a) Irisgarritasuna kontrolatzea (Erregelamenduaren I tituluaren araututakoak).
- b) Urrutiko aginteak banatzea (Erregelamenduaren 6. artikuluan aipatutakoak).
- c) Tarifa-izaerako aparteko errearguak jartzea (Erregelamenduaren IV. Tituluaren araututakoak).
- d) Arau-haustekak izan daitezkeen gertakarien zigor-prozedurak tramitatzeke jarduerak egitea (Erregelamenduaren V. tituluaren tipifikatutakoak).

**Bigarrena.**- Zarauzko Udalaren eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea, kudeatzeko ardura hori gauzatzeko. Hitzarmena jarraian transkribatuta dator.

**Hirugarrena.**- Alkate jaunari ahalmena ematea hitzarmen hori sinatzeko.

**ZARAUZKO UDALAREN ETA GIPIZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN ARTEAN IZENPETUTAKO KUDEAKETA GOMENDIOAREN HITZARMENA, ZEINAREN BITARTEZ BIDAIAREN ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO-ZERBITZU PUBLIKO ERREGULARRAK HARMONIZATZEKO ERREGELAMENDUAN EZARTZEN DEN APARTEKO ERREKARGUAREN KUDEAKETA GOMENDIOA, ZERBITZU HORIEN IRISGARRITASUNAREN DIAGNOSIAREN ETA IBILGAILUEN IRISGARRITASUNA BERMATZEKO MEKANISMOAK AKTIBATZEKO GAILUEN BANAKETA KUDEATZEKO GOMENDIOA, ETA BAITA ERREGELAMENDUAN TIPIFIKATUTAKO ARAU-HAUSTEENGATIK ZEHAPEN-ARAUBIDE PROZEDURA KUDEATZEKO GOMENDIOA FORMALIZATZEN DEN.**

Donostian, 2015eko -ren -an

#### **BILDU DIRA**

Alde batetik, Juan Luis Illarramendi Roteta jauna, alkate gisa, ZARAUZKO UDALAREN (aurrerantzean, Udala) izenean eta ordezkapenean.

Bere agerraldirako ahalmen bereziarekin jarduten du, Korporazioko Osoko Bilkurak 2015eko apirilaren 29an hartutako akordio bidez onartu zena.

Eta beste alde batetik, Antonio Aiz Salazar jauna, presidente gisa, GIPIZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN (aurrerantzean, GGLA) izenean eta ordezkartzan.

Bere agerraldirako ahalmen bereziarekin jarduten du, 2015eko apirilaren 23an GIPIZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN Batzar Orokorrak hartutako akordio bidez onartu zena.

Parte hartzen duten alderdiek, Hitzarmen hau burutzeko bata bestearen jarduteko gaitasuna aitortzen dute beren-beregi.

#### **ADIERAZTEN DUTE**

**I.-** Udalak, Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako legeen arabera, hiribideetan ibilgailu eta pertsonen trafikoa arautzeko eskumena eta bidaiarien hiri barneko garraio publikoaren inguruko eskumena egikaritzen dituela, 1985eko apirilaren 2an onartu zen Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25.2.g) artikuluan ezartzen denaren arabera.

Testuiguru honetan, Udalak bere interesen kudeaketaren eta bere eskumenen esparruan, hiri garraio kolektiboaren zerbitzua ezarri du eta hori eskaintzen du, bere auzokideen beharrian eta aspirazioak betetzen lagunduz.

**II.-** GIPIZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Arrasate-Mondragón, Zarautz eta Hernaniko Udalek osatzen duten Partzuergo bat dela, helburutzat garraio bide eredu jasangarri baten bitartez Lurralde Historikoa kohesionatzea eta baita mugikortasunaren alorrean administrazio publikoek dituzten helburu desberdinei babesa ematea duena. Bere zeregina, Gipuzkoako Lurralde Historikoan kalitatezko mugikortasun irisgarria faboratzea da.

Zentzu horretan, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren jomuga -beste batzuen artean-, Partzuergoa osatzen duten erakundeen eta Gipuzkoako garraioen azpiegituren arteko koordinazio eta kooperazioa artikulatzea da.

Aurrekoarekin bat, erakundearen Estatutu organikoek ezartzen dute Agintaritzaren xedea dela Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerbitzu eta azpiegituren alorrean partzuergoa osatzen duten edozein eskumen ekintza kudeatzea, horretarako egokia izan daitekeen kudeaketa gomendioa bezalako tresna juridiko baten bitartez.

**III.-** Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren esku utzitako eskumenen egikaritzan, partzuergoak bidaiaren errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko Erregelamenduaren proiektu bat garatu zuela eta partzuergoko erakundeen artean (eta pertsonen garraio publikoko zerbitzuen titularrak diren beste toki erakundeen artean) horren onespena bultzatu zuela.

**IV.-** 2015eko otsailaren 25ean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Udalaren osoko bilkuraren akordioa argitaratu zela, zeinaren bitartez, eta betiere bere eskumenen esparrurako, bidaiaren errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamenduaren behin-betiko onarpenera gauzatu zen.

V.- Aipatutako Erregelamenduak bere I. Tituluan irisgarritasun unibertsalaren kontzeptua garatu eta erregulatzen duela. Irisgarritasun unibertsal hori bermatzeko helburuarekin, Erregelamenduko 7. artikulua hurrengo ezartzen du: *garraio-zerbitzuaren titularraren den administrazioak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu garraio-sistema une bakoitzean dauden irisgarritasun- eta mugikortasun-beharretara pixkanaka egokitzeko.*

Betebehar horrek momentu honetan exijitzen du Udalak bere titulartasunpeko errepide bidezko pertsonen garraio bideak dituzten irisgarritasun eta mugikortasun baldintzen diagnosi zehatza egitea.

VI.- Aurrekoarekin jarraituz, eta irisgarritasun unibertsalaren eraginkortasun ahalik eta handiena lortzeko, Erregelamenduaren 6.1. artikulua hurrengo ezartzen duela: *ibilgailuak irisgarritasun-sistemez hornituta egongo dira. Aipatutako sistemak erabilgarri eta aktibagarri egongo dira beti, horretarako ezarritako gailuen bitartez, adibidez urrutiko kontrolen bitartez.*

Irisgarritasun-sistema horiei dagokienez, 6. artikuluko seigarren paragrafoak ondorengo ezartzen du: *Garraio-zerbitzuaren titularraren den administrazioak sustatuko du autobusetako irisgarritasunerako gailu akustikoak aktibatzeko beharrezkoak diren urrutiko aginteen banaketa, hala eskatzen duten pertsonen artean.*

VII.- Aipatutako Erregelamenduak, gainera **tarifa-izaerako aparteko errekarua** baten sorkuntza aurreikusten duela. Zehazki, Erregelamenduaren 47. artikulua ezartzen du: *sarreran kontrolatutako edo behar bezala balidatutako garraio-titulurik ez duten bidaiariak behartuta egongo dira tiketa erostera, 50 euroko tarifa-izaerako aparteko errekarua ordainduta egindako ibilbidearen truke edo egin nahi dutenaren truke.*

Erregelamenduak hurrengo esanez jarraitu egiten du: *bidaiariak aparteko errekarua ordaindu ezin bada baliozko edo behar bezala balidatutako titulurik gabe zerbitzu publikoa erabiltzen ari zela egiaztatzeko unean bertan, eta bidaiari jarraitu nahi bada, gidariak edo ikuskatzaileak salaketa-orrria beteko du; bertan, bidaiariaren identitatea, eguna, ordua, linea eta gertatutakoa jasoko dira (titulurik gabe edo baliozko txartelirik gabe bidaiatzen ari bada, eta azken kasu horretan txartelaren titularraren identifikatuko da), artikulua honetako lehenengo paragrafoan aurreikusitako aparteko errekarua ordain dezan.*

VIII.- Aurrekoaz gain, pertsona erabiltzaileek edota garraio-enpresa eragileek bakoitzari dagozkien betebeharrak ez betetzea, arau-hauste administratibo bezala kontsideratua izango dela, eta indarrean dauden lege administratibo autonomikoetan, eta bereziki, lurreko garraioa eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak erregulatzen dituen legegietan aurreikusitako zehapenen ezarpena ekarriko duela.

Beste alde batetik, aipatutako Erregelamenduan jasotzen diren betebeharren ez-betetzea, aurreko paragrafoan aipatu den legerian beren beregi tipifikaturik ez badago ere, arau-hauste administratibo bezala kontsideratuko da, eta zerbitzu publikoaren titularraren den Administrazioak zehatuko du, Erregelamenduan bertan adierazten denaren arabera.

IX.- Gaurko egunean, Udalak ez duela beharrezkoa den azpiegitura administratiboa jarraian aipatzen diren gaiak kudeatzeko: (i) aipatutako zerbitzu horien irisgarritasun eta mugikortasun baldintzen diagnostia, (ii) zerbitzu horietara adskribitutako ibilgailuen irisgarritasun mekanismoak aktibatzeko gailuen banaketa, (iii) bere titulartasunpekoa den bidaiaren errepide bidezko garraio-zerbitzu publikoari dagokion aparteko errekarua eta (iv) bidaiaren errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeke Erregelamenduan arau-hauste bezala tipifikatutako egintzengatik tramitatu beharreko zehapen prozeduren izapideak.

X.- Erregelamenduan jasotzen diren, eta Hitzarmen honetako V, VI, VII eta VIII puntuetan aipatu diren lau gaien inguruan, alderdiek interes orokorraren babeserako beharrezko eta komenigarritzat jotzen dutela bidaiaren errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeke Erregelamendua martxan jartzeko epearen barruan Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak gauzatu ditzala:

- Erregelamenduaren I. Tituluan erregulatzen den irisgarritasunaren kontrola.
- Erregelamenduaren 6. artikuluan aipatzen diren urrutiko aginteen banaketa.
- Erregelamenduaren IV. Tituluan arautzen den tarifa-izaerako aparteko errekaruaren kudeaketa.
- Erregelamenduaren V. Tituluan arau-hauste bezala tipifikatutako egintzengatik tramitatu beharreko zehapen prozeduren izapidetzea.

XI.- Ekintzen gauzatzeko hori bere eduki material, tekniko eta ekonomikoagatik gomendatzen dela, eta ez duela organo gomendatzailearen eskumenen titulartasunaren ezta horien baliatzearen transferentziarik suposatzen, horrek emango baititu gomendioaren objektu den ekintza materialen euskarri izango diren izaera juridikoko egintza edo ebazpen guztiak.

Aurreko guztia oinarritzat hartuta, eta azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 15. artikulua erekin bat etorriz, kudeaketa-gomendioaren hitzarmen hau izenpetzen dute, hurrengoetan oinarrituz eraenduko dena

## KLAUSULAK

### Lehenengoa.- Gomendioaren objektua.

Hitzarmen honen bitartez, Udalak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren esku uzten du hurrengo kudeaketa:

- a) Erregelamenduaren I. Tituluan erregulatzen den irisgarritasunaren kontrola.
- b) Erregelamenduaren 6. artikuluan aipatzen diren urrutiko aginteen banaketa.
- c) Erregelamenduaren IV. Tituluan arautzen den tarifa-izaerako aparteko errekaruaren kudeaketa.
- d) Erregelamenduaren V. Tituluan arau-hauste bezala tipifikatutako egintzengatik tramitatu beharreko zehapen prozeduren izapidetzea.

**Bigarrena.- Kudeaketa gomendioaren hedapena: Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak gauzatu beharreko jarduerak.**

Udalaren titulartasunpeko bidaiarien garraio-zerbitzu publikoen inguruan Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari gomendatzen zaion kudeaketa modu honetara garatuko da:

#### **2.1 Erregelamenduaren I. Tituluan erregulatzen den irisgarritasun unibertsalaren kontrolaren eta mugikortasunaren diagnostia.**

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak, Udalaren eskumeneko errepede bidezko garraio-zerbitzu publikoak dituen irisgarritasunaren kontrolaren diagnostia proposamen bat eta mugikortasunaren diagnostia proposamen bat egingo du, ikuskatu beharreko aspektu, zerbitzu eta azpiegiturak identifikatuz. Proposamen horretan, azterlanaren metodologia ezarriko du.

Proposamen hori oinarritzat hartuta, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak landa-lana burutuko du, gauzatzen den egiaztatze bakoitzari buruzko fitxa prestatuz.

Landa-lana bukatu ostean, horren emaitza jasoko duen txosten bat prestatu beharko du Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak; txosten horrek landa-lanetik ateratako ondorioak eta garraio sistemaren irisgarritasun eta mugikortasun beharrezkoak etengabeko egokitzea gauzatzeko proposatzen diren neurriak ere jaso beharko ditu eta baita hurrengo urtean aplikatu beharko den diagnostia horren jarraipenaren proposamena ere.

#### **2.2 Erregelamenduaren 6. artikuluan aipatzen diren irisgarritasun mekanismoak aktibatze urrutiko aginteen banaketa**

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak eskuratu beharreko gailuen ezaugarri teknikoak definituko ditu, Udalaren titulartasunpeko garraio publikoaren zerbitzura adskribitutako ibilgailuak oinarritzat hartuta.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak gailu horien hornikuntza eta zuzkidura kudeatuko du.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak gailuak banatuko ditu horiek eskatu dituzten pertsonen artean eta produktu horiek kontsumitzaileak defendatzeko araudiarekin bat-etortze ezagatik sor daitezkeen erreklamazioen gaineko erantzukizuna bere gain hartuko du.

#### **2.3 Erregelamenduaren IV. Tituluan arautzen den tarifa-izaerako aparteko errekaruaren kudeaketa**

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak, aparteko errekaruak MUGI sistemaren ustiapena ahalbidetzen duten informazio sistematan integrazteko beharrezkoak diren garapen informatikoak egingo ditu.

Bidaiariak aparteko errekarua ordaindu ezingo balu baliozko edo behar bezala balidatutako titulurik gabe zerbitzu publikoa erabiltzen ari zela egiaztatze unean bertan, eta bidaia jarraitu nahiko balu, gidariak edo ikuskatzaileak salaketa orria beteko du; bertan, bidaiariaren identitatea, eguna, ordua, linea eta gertatutakoa jasoko dira (titulurik gabe edo baliozko txartelirik gabe bidaiatzen ari bada, eta azken kasu horretan txartelaren titularra identifikatuko da), Erregelamenduaren 47. artikuluan aurreikusten den aparteko errekarua ordain dezan.

Udalak, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari garraio-enpresa eragileetako gidari edo ikuskatzaileak betetako salaketa-orria helaraziko dio.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak salaketa-orrian ezarritako epean aparteko errekaruaren ordainketa egin dela egiaztatuko du.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak bere baliabideen bitartez aparteko errenergua biltzeko egin beharreko guztiak egingo ditu.

Eta salatutako bidaiariak ez balu Erregelamenduak ezarritako ordainketa-betebeharra beteko horretarako ezarritako epean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak dagokion salaketa igorriko dio Udalari, horrek dagokion zehapen prozedura has dezan Erregelamenduak erakundetutako erantzukizunak xahutzeko.

Garraio zerbitzua emateko emakida duten garraio-enpresa eragileek kreditu eskubideak izango dituzte Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan aparteko errenergua ordaintzean, Erregelamenduaren arabera garraio-titulua erosi behar duten erabiltzaileek gordailututako saldoekiko.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak geroagoko momentu batean eta aldizka egiaztatuko du kreditu-eskubide horien likidazioa, erabiltzaileek gauzatutako kantzelaio guztien arabera eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Orokorrean zehaztutako likidazio eta konpentsazio sistemaren arabera.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak hilabetero jakinaraziko dio Udalari ordaindutako aparteko errenerguei dagokion likidazioaren diru kopurua.

#### **2.4 Erregelamenduaren V. Tituluan potentzialki arau-hauste bezala tipifikatutako egintzengatik tramitatu beharreko zehapen prozeduren izapidetzea**

Kudeaketa-gomendio honek bere barne hartuko ditu, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak gauzatu beharreko hurrengo prozedura-jarduerak:

- a) Arau-hauste baten komisio posible bat komunikatzeko dokumentu, jarduera eta ekimenen jasotzea.
- b) Prozedura zehatzaile bat irekitzea justifikatuko luketen inguruabarrak ematen diren zehazteko beharrezkoak diren aurretiazko egintzak.
- c) Udalari, prozedura-zehatzailea hasteko akordioaren proposamena bidaltzea instrukzio-organoa zein izango den determinatuz edo, bere kasuan, Udalari prozedura hasteko desegokitasun adierazpena bidaltzea.
- d) Udalari, behin-behineko neurrien proposamena bidaltzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko, otsailaren 20ko, 2/1998 legearen, 31. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- e) Agintaritzako instrukzio-organoak egoki deritzon frogen praktika gauzatzea.
- f) Ebazpen proposamena erabakitzea eta interesdunei jakinaraztea eta hori Udalera bidaltzea, espediente administratiboan dagoen dokumentazio guztiarekin batera. Agintaritzak bere artxiobotan gordeko du benetakotzat egiaztatutako espediente osoaren kopia bat.
- g) Interesdunek aurkeztutako alegazio, dokumentu edo informazio guztien jasotzea.
- h) Interesdunei egintza eta erresoluzioak jakinaraztea eta jakinarazpen hori egiaztatuko duen dokumentua jaso eta gordetzea.

Bere aldetik, Hitzarmen honetan jasotzen den kudeaketa-gomendia egoki bete dadin, Udalak hurrengo ekintzak burutzeko konpromisoa hartzen du:

- a) Erregelamenduan arau-hauste bezala tipifikatutako egintzen salaketak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzara berehala bidaltzea, eta baita horietara eratzikitzen den edo Erregistroetan aurkeztu izan den beste edozein dokumentazioa ere.
- b) Ahalik eta lasterren Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzara bidaltzea Alkateak edo Toki Administrazioiko organo eskudunak emandako egintza edo ebazpen guztien kopia, horrek dagozkion jakinarazpenak egin ahal ditzan.
- c) Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzara ahalik eta lasterren bidaltzea interesdunek, prozeduraren edozein fasetan, Erregistroetan aurkezten dituzten alegazio, dokumentu eta informazio guztiak.
- d) Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak eskatzen dizkion informazioa eta datuak ematea.

Kudeaketa gomendioan ez dira barneratuta ulertuko nahitaezko betearazpena gauzatzeko burutu beharreko egintza administratiboak, ezta Toki-Korporazioaren judiziozko defentsa, interesdunak ebazpen zehatzailea jurisdikzio bidean aurkaratuko balu.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak birkontratatu ahalko ditu, betiere sektore publikoaren kontratazio araudia errespetatuz, Hitzarmen honen bitartez gomendatutako kudeaketan exekuziorako beharrezkoak diren laguntza-tekniko eta hornikuntza guztiak, modu eraginkor eta eragingarriean interes orokorra asetzeko helburuarekin.



### **Hirugarrena.- Erregimen ekonomiko eta finantzarioa.**

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak, Hitzarmen honen bitartez gomendatzen zaizkion zereginak burutu ahal izateko, ekintza horiei euskarria emango dien erregimen ekonomiko eta finantzarioa aurreikusi behar da.

Horretarako, Hitzarmen hau indarrean sartzen denetik Udalak, urtero, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari gehienez X euro emango dizkio, partzuergoaren estatutu organikoaren 30.2.b) artikuluan aurreikusten den berariazko ekarpenaren kontzeptuan.

Ekarpen horren zenbatekoa Batzar Orokorreko parte-hartzearen portzentaiaren arabera kalkulatzen da.

### **Laugarrena.- Eskumenen titulartasuna.**

Hitzarmen honen bitartez gauzatzen den kudeaketa-gomendioak ez du eskumenaren titulartasunean eraldaketarik sortzen, eta ez du agindutako gauzatzea baino lehen hartu beharreko erabaki juridikoen esparruan eraginik. Gauzak horrela, Administrazio gomendatzaileak agindutako jardueren egikaritzaren ikuskapena egitearen erantzulea izango da.

### **Bosgarrena.- Jarraipen-batzordea.**

Hitzarmen honekin erlazioatutako gai guztien koordinazio egokia ziurtatzeko, Hitzarmenean jasotako konpromezuen betepena ziurtatzeko eta sor litezkeen interpretazio arazo edo sor litezkeen gatazkak ebazteko Jarraipen-batzorde bat eratzen da, lau kidez osatuko dena: Udaleko bi kide eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzako bi kide, eta horiek dagozkien Gobernu Organoek izendatuko dituzte.

Batzorde horrek, beharrezkotzat dituen kide berriak barneratu ahal izango ditu.

Batzordea, edozein alderdik eskatuta bilduko da.

### **Seigarrena.- Indarrean jartzea eta Hitzarmenaren iraunaldia.**

Hitzarmen hau indarrean sartuko da, behin bi entitate sinatzaileen organo eskudunek onartu eta gero eta, azken buruan, GAO-n argitaratu eta gero, 30/1992 Legearen 15.3. artikuluan ezarritakoaren arabera eta urtebeteko iraupena izango du.

Hasierako indarraldiaren epea pasatu eta gero, urteroko luzapena jasango du, betiere indarraldi osoak ezin izango duelarik 4 urteko epea gainditu.

### **Zazpigarrena.- Iraungipena.**

Hitzarmen hau iraungiko da:

- a) Alderdien arteko akordioaren ondorioz.
- b) Indarraldi-epea igarotzeagatik.
- c) Administrazio gomendatzailearen ezeztatzeagatik, kudeaketa-gomendia jasotzen duen Administrazioak bere gain hartzen dituen betebeharren edozein ez-betetzeagatik gerta daitekeena. Ezeztatzea, Administrazio gomendatzailearen ebazpen oinarriaren bitartez egin behar da, aldez aurretik kudeaketa-gomendia jaso duen Administrazioari entzunaldi-izapidea eman eta gero.
- d) Kudeaketa-gomendia jaso duen Administrazioaren uko-egiteagatik, Administrazio gomendatzailearen edozein betebeharren ez-betetzearen ondorioz gerta daitekeena. Uko egitea gauzatu baino lehen, entzunaldi-izapidea eman behar da Administrazio gomendatzaileari. Behin izapide hori bete eta gero, uko egitea kudeaketa-gomendia jaso duen Administrazioaren ebazpen arazoituaren bitartez egingo da.

### **Zortzigarrena.- Hitzarmenaren araubide juridikoa.**

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta bere aplikazioan sor litezkeen zalantza edo hutsuneak konpontzeko, 30/1992 Legeak ezarritakoa aplikatu behar da.

### **Bederatzigarrena.- Jurisdikzio eskumena.**

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren 29/1998 Legean ezartzen denaren arabera, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegia eskuduna da, instantzia bakarrean, Hitzarmen honen aurka ezartzen diren errekursoak ebazteko.

Haien adostasuna adieraziz, eta dagozkion efektuak sor ditzan, kudeaketa-gomendioaren hitzarmen hau izenpetzen dute idazpuruan adierazitako toki eta egunean.

Eta aztertzekeo besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, bilkurari amaiera eman diote, gaueko bederatziak hoge gutxitan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.